

ELHUYAR Fundazioa, Alphagalileoko partaide



2003KO OTSAILAREN BUKAERATIK, ELHUYAR Fundazioa Alphagalileo proiektuko partaide bihurtu da.

www.alphagalileo.org Europako ikerketaren berri ematen duen web gunea da. Alphagalileoren helburua European egiten den ikerketari garrantzi handiago eman eta ikerketa horien emaitzak plazaratzeko bideak eskaintzea da; izan ere, ezagutarazten diren ikerketarik gehienak Estatu Batuetakoak dira. Proiektua Ingalaterrako British Association elkarteak gidatzen badu ere, gaur egun Europako herrialde askotako partaideak ari dira ordezkar lanean, hala nola: Finlandiako Suomen Akademia, Frantziako L'Association française pour l'avancement des sciences, Alemaniako Forschungszentrum Jülich ikerketa-zentroa, Greziako National Hellenic Research Foundation, Portugalgo Observatorio das Ciências e das Tecnologias, Suediako Vetenskapsradet ikerketa-kontseilua, Ingalaterrako Council for the Central Labo-


ratory of the Research Councils, The Arts and Humanities Research Board, British Academy eta, azkenik, European Science Foundation.

Alphagalileo European egiten den ikerketaren erakusleioa da. Bertan, ikerketaileek beren ikerketak argitaratzeko aukera dute eta kazetariak, berriz, ikerketa horien berri jaso dezakete. Gaur egun, hain zuzen ere, 3.771 kazetari eta 4.723 berri-emaile daude, horien artean ELHUYAR Fundazioa. Bestalde, web gunean, gutxi gorabehera, 10.000 berri, 1.300 ekitaldi eta 350 liburu daude kontsultagai.

ELHUYAR Fundazioa Alphagalileoko partaide bihurtzean, Euskal Herriaren ordezkar bihurtuko da. Gure betebeharren artean, bertoko ikerketaren berriak biltzea, zerbitzuaren berri ematea eta www.alphagalileo.org web gunea euskarara eta gaztelaniara itzultzea egongo dira. Gainera, Alphagalileoko zuzendaritza-taldeko partaide izango denez, proiektuari dagozkion erabakietan parte hartuko du ELHUYAR Fundazioak. Bestalde, epe laburrera, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatearekin Espainiako ordezkaritza osatzeko hitzarmena sinatzeko asmoa dago.

Basque Research-en oihartzuna Alphagalileon

ELHUYAR Fundazioak, 2002ko ekainean, www.basqueresearch.com Euskal Herriko ikerketaren topagune izan nahi



ARTXIBOKOA

duen web gunea jarri zuen martxan. Hain zuzen ere, Basque Research atariaren eskutik bideratu dira Alphagalileora euskal ikerketaren berriak (izan ere, horixe da Basque Research-en helburuetariko bat). Horietako hainbat berri www.alphagalileo.org atarian argitaratu dira eta, bertatik, Europako komunikabideen artean oihartzun nabaria lortu dute. Hala nola, 2002ko abenduan, Nafarroako Unibertsitate Publikoko berri bat, esnea hozteko eguzkiaren energia erabiltzen duen sistema baten ikerketarena, laugarrena izan zen abenduko Alphagalileoko estatistiketan. 2002ko urtarrileko zerrandan, berriz, Inasmeten begi barneko lentillei buruzko ikerketaren berria bigarrena izan da, 198 bisitarirekin.

Otsailetik aurrera, beraz, ELHUYAR Fundazioa Alphagalileo proiektuan berri-emaile izatetik partaide erabakigarri izatera pasatuko da eta, horrela, euskal ikerketak hitz egiteko eta erabakitzeko aukera izango du European.



ARTXIBOKOA